



elkar-lan
S. C O O P.

KOOPERATIBAK SUSTATZEKO ELKARTEA
SOCIEDAD PARA LA PROMOCIÓN DE COOPERATIVAS

Entidad declarada de UTILIDAD PÚBLICA
HERRI ONURAKO izaera emandakoa

Elkar-Lan, S. Coop.
San Vicente, 8 - 9.º Izq. (Edif. Albia II)
48001 BILBAO
Tel.: 94 470 37 60
Fax: 94 470 37 61
e-mail: elkarlan@elkarlan.coop
www.elkarian.coop

Bilbao, 28 de octubre de 2021

Asunto: **Autonomoentzako (enpresaburu eta profesionalentzako) zuzeneko laguntzak, sektore pribatuaren kaudimenari laguntzeko eta zorpetzea murrizteko**

Lagun agurgarria:

Argitaratu da 2021eko urriaren 13ko AGINDUA, Ekonomia eta Ogasun sailburuarena. Horren bidez, sektore pribatuaren kaudimenari laguntzeko eta zorrak murrizteko pertsona autonomoentzako (enpresaburu eta profesionalentzako) eta enpresentzako zuzeneko laguntzei buruzko oinarriak onartzen dituen, eta dagokion deialdia egin eta eskabideak aurkezteko epea berriro irekitzen duena.

Xedea: Laguntzen helburua da 2021eko martxoaren 13a baino lehenagoko kontratu-konpromisoen ondoriozko zor-betebeharrak ordaintzea, epe hauetan sortutako betebeharrak badira.

- 2020ko martxoaren 1etik 2021eko maiatzaren 31ra bitarteko aldi, baldin eta azken data horretan ordaindu gabe badaude.
- 2021eko ekainaren 1etik 2021eko irailaren 30era bitarteko aldi, baldin eta azken data horretan ordaindu gabe badaude. Zor-betebehar horiei dagozkien ordainketak hornitzaileei eta beste hartzekodun batzuei (finantzarioak eta ez-finantzarioak) egiteko izango dira laguntzak, bai eta estali gabeko kostu finkoak ordaintzeko ere.

Era berean, **2020ko martxoaren 1etik 2021eko irailaren 30era** bitartean enpresa-jarduerak eragindako kontabilitate-galerak konpentsatzeko erabili ahal izango dira.

Onuradunak:

1. lerroa:

3.000 euro gehienez.

Enpresaburu indibidualak eta profesional autonomoak, baita PFEZko errentak eratxikitzeke araubideko entitateak ere, baldin eta 2019an edo 2020an zergaren araubide erraztuan edo baliokidetasun-errekarguaren araubide berezian (BEZa) tributatu badute haien jardueraren batean eta egoitza fiskala EAEn badute.

2. lerroa:

eragiketa-bolumenaren jaitsieraren arabera.

Enpresaburu indibidualak eta profesional autonomoak, eta 2020an sozietateen gaineko zergan zerga-konsolidazioko araubidean tributatzen ez duten erakundeak, baldin eta 2020an 10 milioi euro edo gutxiagoko eragiketa-bolumena izan badute, egoitza fiskala EAEn badute eta 1. lerroa eskatzen ez badute, nahiz eta 2019an edo 2020an baliokidetasun-errekarguaren araubide berezian tributatu.

3. lerroa:

eragiketa-bolumenaren jaitsieraren arabera.

2020an sozietateen gaineko zergan zerga-konsolidazioko araubidean tributatzen duten taldeak, eta enpresaburu indibidualak, profesional autonomoak eta entitateak, baldin eta 2020an 10 milioi eurotik gorako eragiketa-bolumena izan badute.

Aurkezteko epea : 2021eko azaroaren 9ra arte.

Informazio gehiago:

https://www.euskadi.eus/dirug_laguntza/2021/autonomoei-enpresaburuei-eta-profesionalei-eta-enpresei-sektore-pribatuaren-kaudimenari-laguntzeko-eta-zorpetzea-murrizteko-zuzeneko-laguntzak/web01-tramite/eu/

Adeitasunez,

A handwritten signature in black ink, appearing to read 'Fco. Javier Sanz Santaolalla'. The signature is stylized and somewhat cursive, with a large loop at the end.

Fco. Javier Sanz Santaolalla
Director